

# Moraza: «Euskal artistaz mintzo dena eroldaz ari da, ez identitate estetikoaz»

*Kultur mestizajeaz, menpekotasunez eta kaosaz mintzatu da artista, Bilbon*

Montse Arregi / Bilbo

**Lurraldetasun kantuak: identitate hitz eta irudiak proiektua** asteon garatu dute, Bilbon, Marcelo Exposito eta Gabriel Villota bultzatzaileek. Hautatutako filmekin eta hizlariekin, identitate kolektiboaren gaia hainbat aldetatik aztertzea izan da euren nahia. Atzo Juan Luis Moraza izan zen hizlaria, eta gaur Joseba Zulaikak itxiko du jardunaldia.



Juan Luis Moraza atzo Bilbon, Hika Ateneoan.

IDENTITATEAREN gaia inguruan fritz eta ikuspuntu arras ezberdinak agertu dira Marcelo Expositok eta Gabriel Villotak Bilboko Hika Ateneoan antolatutako **Lurraldetasun kantuak: identitate hitz eta irudiak** jardunaldietan. Aste osoan film emanaldiak eta hitzaldiak izan dira gaia inguruan. Villotaren arabera, «hizlarien hausnarketetan denetik izan da; identitate kolektiboez ari garela, batzuk esparrunazionalaz mintzatu dira, beste batzuek identitate sexualak izan dituzte hizpide, eta identitatearen bestelako adierak ere azaleratu dira jardunaldietan».

Consonni elkartearen eta Artelekuren elkarlanaren emaitza izan da jardunaldia, eta bertan *Domestizo*, *Kaosaren teoria eta praktika* gara jorratu zuen Juan Luis Moraza artistak. Identitatearen erakuntzaren edo desgitearen gara arte garakideekin estu lotua dagoela deritza Morazak. «Sarritan jorratzen da artean identitatearen gaia. Nola? Bada, oso modu ezberdinetan. Bada identitatearekin oso lotuta dagoen auzi bat; egilearen figura, alegia. Artistaten mito erromantikoa indarrean sartu zenetik ezinbesteko figura da artea pentsatu eta egiterako orduan. Hala ere, badira azken urteotako artegintzan egilearen mito desgaitzen salatu diren jarduerak. Egilearena identitate mito gogorra da. Artean irekita dagoen frontea da», azaldu zuen Juan Luis Morazak atzoko ekitaldian.

Identitate gogor horren idela artista individualaren eremuan «deseralkitzen» ari dela deritza artistak, eta ilde horretan arte lokalaren edo

«lokalismo zabaia den arte unibertsalaren» eremuan ere desegiten ari dela uste du.

**Euskal arteaz**

Euskal arteaz mintzatzea «arazotsua» da Morazaren aburuz. «Bide laburra bilatu eta modu erradikalean erabaki dezakezu euskal artea denaren robot erretratu egi-

tea. Baina orduan desegin ezin daitekeen identitatea sortzen duzu, eta artearen prozesu formalak badu deseralkitzearekin lotuta dagoen aldea ere. Orduan, nola definitu identitatearen arazoa deseralkitzen ari den zerbaiten identitatea?»

Morazaren ustez, euskal artistaz mintzatzeko horrek zerikusit gehiago du «errola

kontuekin identitate estetiko edo intelektual zehatz batekin baino».

Morazaren beraren esanetan, identitate aukera batzuen errepresioak dakar beste batzuk gailentzea: «Artista bat ez da jaiotzen inpresionista izanez, edo albaniar izanez, edota maskulino edo femenino izanez, hori guztia egin egiten da».

Identitatea gogoetagai

■ GABRIEL VILLOTAK eta Marcelo Expositok presatu dute **Lurraldetasun kantuak: identitate hitzak eta irudiak** izeneko proiektua. Euskal kultura eta gizartearen egoera ardatz hartuta, beste eremu batzuetara eramanez nahi da identitatearen erakuntzaren esperientzia. Filmek eta hitzaldiek osatzen dute proiektuaren lehen atala, asteon Bilboko Hika Ateneoan burutu dena.

«Identitatea kezka den gara da, ez bakarrik arte garakidean, kulturaren oro har ere bai. Bizi dugun unean identitate asko kristian sartu dira, bai indibidualak zein kolektiboak, eta beraz, eztabaidarako gai aproposa da», esan zuen atzo Villotak.

Jardunaldietan, ikuspegien aniztasuna izan da nagusi. Santos Zunzunegi, Ramon Zallo, Lourdes Mendez eta Villota bera mintzatu dira aste honetan, eta, gaurko saioan, Jean Christophe Royoux arte garakide aditua eta Joseba Zulaika antropologoa izango dira hizlari. *Abandoibarra eta Zorrozaurre bitartean*, edo *mitoen plazerra, hondakinak, arteak eta identitateak* izango da Zulaikaren hitzaldia.

aranburu jauregia

**TOLOSA**

**okupgraf**

«beste euskarriak, beste formatoak»

(ekainaren 11tik uztailaren 10era)

**KULTUR ETXEKO ARTE PLASTIKOEN TAILERRETAKO IKASLEAK**

(ekainaren 18tik uztailaren 10era)

Ordulegia: astelehen eta astelehenean izan ezik, 17:30 - 20:30  
 S/a. Maria Plaza, 4. Tel.: (943) 674811. Faxa: (943) 672622

**HONDARRIBIA**

ALDE ZAHARREAN

Mercedes de Antzu  
 Antzuako Heriak

Junio 19 y 20, Hondarribia  
 Ekainaren 19 eta 20an, Hondarribia

Hondarribiko Udala

Kultura Arloa